

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarteak

2024ko otsailak 16 · 1301 zenbakia



## EIBARKO DUATLOIA 30. EDIZIOA ATE JOKA

Toribio Etxebarria, 1

**EUKi**  
inmobiliariak

20 urtetik gorako esperientzia  
eskaintzen dizuegu  
balorazioetan eta eraikinetako  
salerosketa, alokairu eta  
traspasorako bitartekotzan



bisitatu gure eskaintzak web-ean  
[www.euki.com](http://www.euki.com)

**GALDETU:** 943 20 03 58 / [fincas@euki.com](mailto:fincas@euki.com)

**API**

**EIBARKO  
HIZKUNTZA  
ESKUBIDEEN  
ATARIA**



Herriko kale batean, lanak direla eta, desbideraketa egin dela adierazteko kartela jarri dute; gaztelania hutsean

Zer egingo dut?

Bidali ASTINDU kanalerak!  
Oso erraza da:



Deitu: 943 708426  
Idatzi: eibarrenakeba@gmail.com  
Bete webguneko formularioa  
Idatzi WhatsApp: 688 69 85 66

**Axola zaizun informazioa  
inoiz baino gertuago**



**etakitto.eus**



# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Kolorez, alaitasunez eta jai giroz beteriko argazkiak laga dizkigute Aratosteek eta hainbat bideotan jaso ditugu irudiok.



#### ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Naike Ereñozaga

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Eskutitzak



## Palestina eta Udaltzaingoa

Aurreko ostiralean Eibarko udaltzaingoak “Palestina askatu” zioen pankarta bat jartzen ari ziren bi kide identifikatu zituen Untzagan. Udaltzainen jarrera, identifikatutako bi kide horiek izan dezaketzen zigorra, palestinar herriaren aldeko mezuen debekua, adierazpen askatasuna... Pasarte honek hainbat hausnarketa piztu dizkigu, baina batez ere galdera bat: Zein jarrera hartzen du Eibarko Udalak gertakari horren inguruan?

Gauza bat argi daukagu: kaleak aldarriz betetzen eta Palestinarekiko elkartasuna erakusten jarraituko dugu! Gora herria!

Eibarko Sortu

# Hortik esanak



Paleolitikoa eta Neolitikoa izan ziren bezala, gaur egun An-siolitikoan bizi gara. Ordea, gizarte tribaletan, antzinako erara bizi diren horietan, bestelakoa da egoera: horietan familiak betetzen du Seguritate Sozialaren papera, eta askoz gertuago daude zoriontasun existentzialetik. Ez dute agendarik, urtaroez markatzen dute erritmoa eta ez dute estresik ezagutzen. Ekonomia zenbat eta garatuago, buruko arazoak ere neurri berean handitzen dira; horren adibide dira japoniarrak, eskandinaviarrak eta errusiarrak eurak ere. Klanetan antolatutako gizarte tribaletan atek zabal-zabalik dauden bitartean, guretan inori ez diogu atek zabaltzen. Hori da ordaindu behar duguna progresatzearen, kontsumismoan murgiltzearen.

**FRANCISCO GINER, antropologoa**

Hainbat zibilizazio izango ditugu paraleloki bizitzen; ez dakigu, ordea, zein lurraldetan. Zeren eta kontuan hartze-koa baita, adibidez, Frantziako biztanleen herenak direla musulmanak egun, eta berdin Britainia Handian edo Alemanian ere. AEBetako migrazio olatuak aipatu gabe! Baina nork sortzen ditu migranteak? Gerra eta arpilaketa inposatzen dituzten horiek berek ateratzen diet etekina gero. Arazoa da Amerikak sortuak direla bai gerra, eta baita gerraren aurkako sendagaia ere. Europako buruzagiak, bestalde, ergelak eta ustelak dira. Europa desegin egingo da, Jugoslavian gertatu zen bezala.

**EMIR KUSTURICA, zinemagilea**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**OTANA** → Ogi mota bat, biribila eta zuria. “Trukian lana egitten ebenak otania hartzen eben kontura etxerako”.

**OTARATU** → Oiloak lotara joan. “Illunabarrian otaratzen dira oilluak”. Metaforikoki pertsonentzako ere erabiltzen da. “Gaur geuri be goizago otaratzia komeni jaku”.





## Banatu dituzte Debabarrena Integra - Bat Eginez programako diplomak

Debabarrena Integra – Bat Eginez egitasmoaren 18. edizioa da aurten-go, eta programako oinarrizko euskara ikastaroa arrakastaz burutu dutenei diploma banatu zieten aurreko astean. Euskara saioak Udalaren eta Armeria Eskolako Elkartearen arteko lankidetzari esker eman dira. Antolatzaileen berbetan, “60 orduko oinarrizko ikastaroaren helburua euskarazko ahozko ulermenean oinarrizko maila lortzea da, integrazio laborala eta soziala errazteko”. Jon Iraola alkateak, Carlos Abad Armeria Eskola elkarteko presidentek eta Patxi Lejardi Euskara zinegotziak banatu zizkieten diplomak ikastaroa amaitu duten ikasleei.

## Kirolari lotutako 250 ekimenetik gora egin dira Eibarren 2023an

2023 Kirolaren Europako Hiria izendapenaren urtea “arrakastatsua” izan da, Eibarko Udalaren arabera. Urtean zehar, kirolari lotutako 250 ekimen baino gehiago egin ziren. Gaineratu dutenez, Ipueruako instalazioetarako aurreproiektu berria amaituta dago, “eta alkateak inbertsioa handituko duela agindu du, instalazioak eta ekipamenduak berriztu, handitu eta hobetzeko”.



## Haurrentzako zientzia tailerrak egingo dira gaur Errebal Plazan

Otsailaren 11n Neska eta Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna ospatzen dela-eta, Udaleko Haurreria eta Gazteria sailak zientzia tailerrak antolatu ditu, 7-11 urte bitartekoentzat, gaur 17:00etan, Errebal Plazan. Azaldu dutenez, “Zientziarena sektore maskulinizatua izan da mendeetan, eta emakumeek egindako aurkikuntza asko gizonen izenekin erregistratu eta ezagutu izan dira historian. Bada, emakumeen lana ikusarazteko, aitortzeko, parte hartzea sustatzeko eta erreferenteak sortzeko sortu zuten eguna”. Nazio Batuen Batzar Nagusiak aldarrikatu zuen 2015ean, emakumeek eta neskatok zientzian sarbide eta parte-hartze osoa eta bidezkoa izan zezaten.

## Langabezia-tasak gora egin du urtarrean

Urtarrileko datuen arabera, 1.578 lagun daude langabezian Eibarren eta langabezia-tasa %12,59koa da. Horrela, langabeziak gora egin du herrian (2023ko abenduako datuen arabera 1.524 lagun zeuden langabezian eta langabezia-tasa %12koa zen). Eskualdeko herri guztietako datuei begira, langabezia-tasa %10,61koa da.



Orain dela urtebete inguru hasi zen David Saceda Dominguez Eibarko Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoan lanean. EKHI BELAR.

## Eibarko Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak 1.700 kexa artatu zituen iaz

Udaletik jakinarazi dutenez, Eibarko Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoak (KIUB) 1.704 kontsulta artatu zituen 2023an, eta 161 erreklamaziotan bitartekaritza-lanak egin zituen. Nabarmendu dutenez, urtebeteko tartean asko igo dira aurrez aurreko kontsultak: 2022an, bulegoan zuzenean artatutako kontsultak 175 izan ziren, eta 2023an, berriz, 782. Horrekin batera, KIUBen lan egiteko modua ere aldatu da: “Orain herritar gehienek kontsulta

presentziala aukeratzen dute, telefonoa eta bide telematikoa nahiago dutenen kopuruak behera egin du”. Bestalde, herritarren arazo eta kezka nagusiak ez dira apenas aldatu: fakturazioa, kontratazioa, betetzen ez diren baja-eskaerak, aparatuen funtzionamendu eskasa eta eskatu ez diren zerbitzuak kobratzea, besteak beste. Alkateak eskerrak eman dizkio KIUBeko arduradunari, “egindako lanarengatik eskerrik emateko mezu pila bat” jaso dituztela gaineratuta.



## Jolasak eta bestelako jarduerak antolatuta dituzte Amañako eskolan biharko

Bihar Amañako herri ikastetxearen jaia eta ate irekien jardunaldia ospatuko dute. Goizeko 10:30etik aurrera puzgarriak, Jokai egurrezko jolasak, henna tatuaje tailerrak, munduko janari ezberdinak dastatzeko aukera, musika, ipuin kontalariak (azken honetan, hiru saio egingo dira, 11:00etan, 12:00etan eta 12:45ean)... era guztietako jarduerakegingo dituzte eskolan, bazkaltzeko ordua izan arte. Gainera, jaialdia musikarekin girotzen auzokoa den DJ Agus arituko da. Bertako Gurasoen Elkartetik herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte: “Animatu eta etorri gure eskola, gure mundua ezagutzera!”.

www.aldatze.eus

aldatze  ALDATZE DENOK GARA

MATRIKULA - IZEN EMATEA -  
otsailaren 7tik 23ra





## La Salle ikastetxeko ikasleek bakearen aldeko eskola eguna ospatu dute

Orain dela egun batzuk indarkeriarren aurkako eta bakearen aldeko eskola eguna ospatu zuten La Salle eskolakoez, Eibarren dauden bi ikastetxeetan. Isasi kalekoan, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleek bakearen aldeko marrazki eta mezuekin hormairudia egin zu-

ten. Eta Azitaingo ikasleek, berriz, globo mordoarekin euria irudikatu zuten, egunerako aukeratutako goiburua, *Bakearen zaparrada*, gogoan hartuta. Bi ekitaldi horiekin bakean bizi nahi dutela aldarrikatu zuten ikasleek, aurreko urteetan egindako bidetik.



## Ederto ospatu dituzte Aratosteak Goi Argi elkartean

Goi Argi emakumeen elkartekoek Aratosteak ospatu dituzte aurten ere, “gogoz eta umore handiz. Zer izango du jai honek, gure herri osoari gozamenaren poza kutsatzen dionik? Guk ezin dugu hutsik egin urtero”. Horrela adierazi zuten aurrerantzean ere jaiarekin jarraitzeko asmoa.

## Atxilotuta, Eibarko etxe batean lapurreta egiten ahalegintzeagatik

Ertzaintzaren prentsa-bulegotik jakinarazi dutenez, ertzainek gizon bat atxilotu zuten aurreko aste- teko eguenean, Eibarko etxe batean ustez lapurreta egitea leporatuta. “Goizaldeko lauak aldera, gazte bat leihotik sartu zen Eibarko etxebizitza batean. Gero jarri zuten salaketan jasota dagoenez, gizonak dirua emateko esan zien etxean zeudenei, eta labana batekin mehatxatu zituen. Baina etxeok euren logeletan sartu ziren, eta ezezagunak ihes egin zuen, bere helburua lortu gabe”. Gertaera ikertzen hasi, eta delituaren ustezko egilea identifikatu ahal izan zuten. Hurrengo egunean aurkitu zuten, Ermuan, eta Udaltzaingoaren laguntzarekin atxilotu zuten 18 urteko gizona.



## Haur eta nerabeen gurasoentzat hitzaldiak

Haur eta nerabeen gurasoentzat “Estrategias de comunicación y resolución de problemas” hitzaldia antolatu dute, Gurasoak Martxan egitasmoaren baitan, otsailaren 21 eta 22rako (18:00etan, Portalean). Hizlaria Esther Martinez izango da, eta ikastetxe bakoitzeko Guraso Elkartean edo gizartekintza@eibar.eus helbidera idatzita eman daiteke izena.





## Eibarko Dendarien Elkarteak antzerkira joateko 30 sarrera bikoitz zozketatuko ditu bere bezeroen artean

Eibarko Dendarien Elkarteak kanpaina berria abiatu du, iaz bezala, tokiko merkataritza eta antzerkia lotzeko asmoz. Azaldu dutenez, “eguztenez geroztik eta martxoaren 6ra arte, Eibarko Dendarien Elkarteak saltokietan erosteagatik, XLVII. Eibarko Antzerki Jardunaldien barruan antzerkiaz gozatzeko zozketatuko ditugun 30 sarrera bikoitzeko bat lortu daiteke”. Zozketan parte hartzeko bi modu daude: 15 sarrera bikoitz Eibarko Dendarien Txartelaren bidez zozketatuko dira, Rural Kutxa datafonoaren bitartez, erosketa egiten den unean; eta beste 15 sarrera bikoitzen zozketa, erosketa-tiketa saltoki bakoitzean dagoen kutxan lagatzen dutenen artean egingo da, martxoaren 8an.



## Txosnak orain arteko tokian jartzea proposatu die udalak JHH taldekoei

Aurten sanjuanetan txosnak non jarri zehazteko, bilera egin dute Patxi Lejardi eta Andoni Zabala Jaiak eta Gazteria Saileko zinegotziak Jaixak Herrixak Herrixandako taldeko ordezkariekin. Adierazi dutenez, udal-gobernuaren proposamena txosnak orain arteko tokian, hau da, Eibarko Txikito kalean eta Txaltxa-Zelaian mantentzea da: “Hala ere, kontuan hartu behar da harmailen eta tenpletearen inguruan egindako obren ondorioz (bainugela publiko berriak eta udarako ur-zurrustak dituen jolasgunea), espazio hori berrantolatatu egin behar dela”.

Orain arte, Jaixak Herrixak Herrixandako-k bi leku posible planteatzen zizkion Udalari: lehena, Txaltxa-Zelaiko parkingaren gainean, betidanik barrakak jarri izan

diren lekuan; eta bigarrena, Untzaga plazan, udaletxearen aurrean. Baina gobernu-taldeari ez zaizkio ez bata ez bestea gustatu, “leku horietan jarriz gero, ezin izango liratekeelako sanjuanetako ohiko jarduerak egin”. Horrela, betiko tokian ipintzea proposatu diete txosnetako ordezkariari. Erantzunaren zain daude orain. Andoni Zabala Gazterriko zinegotziaren berbetan, “sare sozialen bidez zabalduko kontu batzuen harira, esan beharra dago gobernu-taldekak beti hartu dituela kontuan txosnak San Juan jaietarako. Udalak, orain arte bezala, txosnagunean antolatutako jai-programa (kontzertuak, erromeriak, eta abar) diruz laguntzen jarraituko du, udalerriko beste kultur talde batzuekin egiten duen bezala”.

# ek!

Zure publizitatea  
herriko aldiarian

**688 621 535**

publizitatea@etakitto.eus

**garbibox**  
zute garbiketak  
limpieza profesional

TAPIZARIA + AUTO GARBIKETAK

Urtzi Antxustegi (688 649 837)

09:30/19:00 EROSKI-n





# Aro berria indarrarekin hasiz

Urte berriarekin aro berria hasi du Untzagako jubiletxeak. Zuzendaritzako karguak berritu dituzte eta orain Sagrario Sanchez da presidentea, presidenteordea Alberto Viteri den bitartean. Jubiletxeak azken urteetako aktibitate zirrargarriari eutsi nahi dio eta hainbat erronka ditu aurretik. Horretarako, euren bidea egitea erabaki dute, herriko jubiletxeak batzen zituen 'Bizitu' koordinadora laga eta 'Helduak zabaltzen' planetik aldentuz.

**U**ntzagako jubiletxeak zeresana eman duten erabakiak hartu ditu urte hasiera honetan. Horren inguruan gehiago jakiteko asmoz, Joseba Garcia Untzagako jubiletxeako zuzendariarekin egon gara erakundearen jardunari eta azken erabaki horiei buruz berba egiteko, eta atsegin handiz kontatu dizkigu nondik norakoak.

Untzagakoen erabakietako bat Bizitu koordinadora lagatzea izan da. "Udalak bultzatuta, herriko lau jubiletxeak batzen dituen elkarte da Bizitu, koordinazioa lantzeko eta harremanak hobetzeko", Garciaren berbetan. "Urteak pasa dira eta ikusi dugu helburuak ez direla bete eta gure arteko harremanak gero eta okerragoak direla".

Jubiletxeen arteko harremanen inguruan galdetuta, Garciak zera dio: "Azken urteotan, Untzagakoak zaplastekoak jasotzera joan dira Bizitu-ra", bere ustez. "Erdialdean gaudela, bazkideak kentzen dizkie-

gula... esaten digute. Erdialdean egoteak etortzeko erraztasuna ematen du, baina kartetan egiteko ez dugu zertan hemen antolatzen ditugun ekintza guztiak antolatu", diosku bertako zuzendaritzak ekintzak prestatzen egiten duen lan handia azpimarratuz. "Hori da gakoa. 1.800 bazkide ditugu eta kartetan bakarrik egitera etortzen direnak oso gutxi dira. Kopuru horren portzentaia txiki bat, baina hori da gehien ikusten dena eta hori da besteengan geratzen den gure irudia".

Untzagakoek Plan Estrategikoa jarri zuten martxan 2017an, "eta guk geuk proposatu genuen, nahiz eta ezer ez irabazi, herriko beste zentroak elkartzen joateko, zuzendaritza bakar batekin, baina zentro bakoitzean zuzendaritza tekniko bati eutsiz", azaldu digu Garciak. "Ba ezta gutxiago ere, ez zuten onartu. Beraz, gure bidetik jarraitzea erabaki genuen", eta horitik dator Untzagari azken urteotan



Ingeleseko bi maila ezberdinetako ikastaroak ematen dituzte Untzagako jubiletxean. EKHIBELAR

hazkundera ekarri dion Plan Estrategikoaren norabidea.

### **Pertsona Nagusien Mahaia**

Bide propioa hartu arren, beste zentroekin harremana eduki nahi izan dutela dio Garciak eta euren ekin-tzetan beste egoitzetako lagunak hartzen dituztela, “horrek sortzen duen defizita geure gain hartuz”. Zentzu horretan, iaz Udalaren aldetik jasotako dirulaguntza kritikatzeko du. “10.000 euro jaso genituen jarduerak egiteko eta Beheko Tokiak (Urkizuko jubiletxeak) 9.500 euro. Bakoitzaren bazkide eta jarduera kopurua aintzat hartuz gero, horrek ez du zentzurik”, bere iritziz.

Zuzendariaren berbetan, “Udalak nabaritu du beste jubiletxeak oso egoera txarrean daudela, baina ez dute zergatia aztertu. Gaizki egingako edo egin gabeko gauzak zeintzuk diren aztertu beharra dago”. Orduan, bere iritziz, “gauzak horrela daudela ikusita, zentro guztiak batzea komeni zaie”.

Untzagako jubiletxeak ez du bat egiten proposamen horrekin eta, euren ustez, Pertsona Nagusien Mahaia osatu beharko litzateke, ez bakarrik jubiletxeen gaia lantzeko, baizik eta nagusiei kaltetzen edo kezkatzen dien gai guztien inguruan lan egiteko, pertsona nagusiak kide dituzten beste elkarte batzuekin batera (Altxoa, Pagatxa...). “Ea noiz iristen den. Pertsona Nagusien Mahaiaren arautegia onartu zuten, baina ez dugu fundamenturik ikusten”, Garciaren berbetan. “Horretarako, Udaleko Pertsona Nagusien teknikarien laguntza jaso beharko genuke, eta ez Eibar sentitzen ez duen enpresa batena”, Untzagako jubiletxeak gai honen inguruan igorritako gutun batean azaltzen duenez.

### **Jubiletxeak ulertzeko beste modu bat**

Azken aipu horrek Helduak Zabaltzen planarekin lotura du, eta horrela azaldu digu Garciak: “Ha-

**>>> Untzagako jubiletxeak Biztu koordinadora laga du eta Helduak Zabaltzen planetik aldendu da**



Karta-jokoak ez dira falta Untzagan, jakina, baina bere eskaintza zabalaren zati txikiena da. EKHI BELAR

## >>> Gaur egun, 1.800 bazkidetik gora daude Untzagako jubiletxean

sieran, Helduak Zabaltzen plana Untzagak ekarri zuen Eibarrera. Baina zer gertatu da? Jaurlaritzak Matia Fundazioa kontratatu duela plan hori aurrera eramateko eta, Udalera etorri zenean, esan zieten Untzaga bakarrik ez zela sartuko, herriko beste jubiletxeak ere sartu behar zirela. Eta nahasketa horrekin pozik ez bazeuden, Biztu ere sartu zuten tartean”.

Untzagakoen ustez, “interesa egon da, batez ere Udalaren aldetik, Helduak Zabaltzenen atentzioa herri mailako arazora bideratzeko (lau zentrotatik hiru daude gaizki), eta ez duela zerikusirik proiektuaren oinarri originalekin (zentroen digitalizazioa eta modernizazioa, gizarteari eskaintzen zaion irudia aldatuz eta estereotipoak gaindituz)”.

Untzagako jubiletxeak argi du zein den bere ikuspegia: “Jendegazteagoari gauzak eta balioak erakustea hona etor daitezten erakartzeko eta belaunaldi arteko ekintzak egi-

tea”. Izan ere, Garciaren ustez, “jubiletxeak beste modu batean ikusten ditugu eta estrategikoki komeni zaigu jende hori erakartzea, bestela ez dago zereginik, eta kartetan jokatzeko, txokolatea jaten eta horrelakoak egiten bakarrik geratuko gara”.

### Eskaintza zabala

Karta-jokoak badaude Untzagan, edozein egunetako arratsaldean bertara joatea besterik ez dago hori ikusteko, baina Garciak aipatu bezala, hori jubiletxearen ekintzen zati oso txikia da, eta asteko jardueren egitaraua ikustea besterik ez dago horretaz jabetzeko.

Orain dela urte batzuk abiatutako Plan Estrategikoaren ondorio da ekintza-plan hori, eta ordu eta toki jakin batean egiten diren ekintzen egitaraua ikusi besterik ez dago. “Noski, horrek jendea erakartzen du”, Josebaren ustez, “eta, aldi berean, ondo erakusten du gauzak egiten jakin dugula. Hori bai, lan handia eginez”.

## >>> Azken urteotan abiatutako Plan Estrategikoari esker hazkundera bizi izan du jubiletxeak

Egitaraua aldatzen joaten da erabiltzaileen beharren eta gizarteak eskaintzen dituen aukeren arabera, baina Euskadi mailan punta-puntako eskaintza dute Untzagan. Horretarako, hainbat gela egokitu dituzte jubiletxean eta, horrez gain, ekintza batzuk beste toki batzuetan egiten dituzte. Hala nola, luzaketak Errebal Plazan, perkusioa Musika Eskolan eta Pilates Kaxa gunean.

Haiek dira Untzagako eskaintzaren adibideetako batzuk: dantza, koroa, zumba, Tai Chi, yoga, gitarra, 'Eman bizitza zure urteei 80 urte bete ondoren' saioak, irakurketa kluba, punta, eskulanak, Burulogy saioak, ingelesa ("Mendilabarrekin Eibar goiko postuetan zegoenean sortu zen ikastaroa, sailkatuz gero European zehar arazo gabe mugitzeko asmoz", dio Garcia bitxikeria bezala), jostintza, poesia, lengoia, matematikak eta informatika. "Gauza gehiago daude jartzeko. Adibidez, xakea. Deporrekokin adostuta dugu, baina noiz



Belaunaldien arteko ekintzak sustatu nahi dituzte Untzagako jubiletxean.  
UNTZAGAKO JUBILETXXEA

eta non egin zehaztu behar dugu", azaldu digu zuzendariak. Era berean, lehen sorospenen ikastaroa jarriko dute, eta billar bat erosi dute klaseak emateko. "Gainera, Gipuzkoako jubiletxeen arteko billar txapelketa bultzatu nahi dugu".

Aipatutakoez gain, ekintza bereziak egiten dituzte urtean zehar. Bertan egon ginenean, adibidez, martitzen aratostea zenez, jai berezia zuten antolatuta. Eta beste ekintza izar bat moda desfilea da. "Ez dakit nola gaindituko dugun iazkoa. ETB

etorri zen eta zuzeneko konexioak egin zituen! Gainera, Lorea Urkia Miss Grand Euskadi egon zen gurekin eta horrelako ekintzak ondo daude belaunaldi arteko integrazio hori lortzeko", Garcia dioenez.

Hori gutxi balitz, pertsona nagusi askori gauza asko egiteko erraztasunak ematen dien 'Bentania' zabaldu zuten iaz eraikinaren beheko pisuan. Pertsona nagusi askok jasaten duten arrakala digitalaren aurka egiten duen zerbitzua da eta oso harrera ona izan du.

# “Gerra bat amaitzen denean, gauza bat da gerra galtzea, eta beste bat galtzaile izatea”

MIGUEL ARROITAJAUREGI • Idazlea



Bizitza guztia irakaskuntzari eskaini ostean, bere lehen eleberria argitaratu du Miguel Arroitajauregik. Letra gizona, buruan bueltaka zuen istorioa hitzetara eraman du ‘Perdedores y vencidos’ liburuan, gertakizun historikoak eta fikziozkoak kontakizuna uztartuz. Yraolagoitia liburu-dendan, eta Urkizuko eta Untzagako prentsa-kioskoetan dago salgai.

**H**ilaren 20an aurkeztuko dute ‘Perdedores y vencidos’ eleberria, 19:00etan, Portalean. Arroitajauregik historiako hiru sasoi islatu ditu liburuan: XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasiera, gerraostea eta 2020ko pandemia. Istorioan galtzaileak eta garaituak agertzen dira, baina galtzaile guztiak ez dira garaituak eta garaitu guztiak ez dute zertan galtzaileak izan.

## “Perdedores y vencidos’, galtzaileak eta garaituak. Zeintzuk dira bi terminoen arteko ezberdintasunak?

Honen atzetik historia dago. Ideia bati bueltak ematen egon naiz aspaldi: gerra bat amaitzen denean, gauza bat da gerra galtzea, eta beste bat galtzaile izatea. Galtzaileen artean beti egoten dira irabazleak, arlo ekonomikoan batez ere, baina baita kontrara ere. Orduan, sei istorio nituen aukeratuta. Hiruk oinarri historikoa zuten, batzuek lotura pertsonalarekin; eta beste hiru nik asmatutakoak ziren. Lau edo bost urte ibili nintzen hori nola lotu pentsatzen, zerbait idatzi nahi nuelako. Beti gustatu zait idaztea, baina idazten hasi arren, ez nuen ezer lortzen. 2022ko udan, praktikoagoa izateko asmoz eta sei istorioak lotzea lortzen ez nuenez, hiru aukeratzea erabaki nuen.

## Horrela bai lortu zenuen istorioarekin aurrera egitea?

Jubilatzen zarenean, gehien duzuna denbora da, eta beti ibiltzen naiz irakurtzen edo Interneten gauzak arakutzen. Orduan, Cadizko futbol taldearen zelaia-zen izena aldatu behar zutela ikusi nuen. Ramon de Carranza zuen izena eta Nueva Mirandilla jarri zioten. Carranzaren historia zein zen ikertzen hasi nintzen eta xehetasun bat aurkitu nuen: Ramonen anai bat, Fernando, Alemaniako enpresa baten izen-mailegatzaila izan zen gerraostean. Sofindus zen enpresaren izena eta wolframioaren kontuan egon zen sartuta, wolframioak interes belikoa zuelako Alemaniarentzat. Kontua da nik aukeratutako hiru istorioetako bat Cadizen zegoela kokatuta eta beste batek wolframioaren gaia lantzen zuela (kasu honetan, Bierzon).

## Seinale bat izan zen?

Horrelako zerbait. Udatik bueltan, gau batean, buruari bueltak ematen, bonbilla piztu zitzaidan eta liburua idazteko nondik jo nezakeen pentsatu nuen. Hortik aurrera, idatzi ahal izateko disziplina pixka bat ezarri nion neure buruari eta dokumentazio lana egiten hasi nintzen. Hiru hilabete ibili nintzen jo eta su informazio bila, eta nik asmatutako istorioekin lotura nola egin zitekeen pentsatzen. Bide bat hartu nuen eta 2023ko



Arroita jauregi idazten duen lehen liburua da 'Perdedores y vencidos'. EKHI BELAR

urtarrilean liburua idazten hasi nintzen. Udan amaitu nuen eta ezagun batzuei eman nien irakurtzeko.

#### **Nolako harrera izan zuen?**

Oso ekarpen interesgarriak egin zizkidaten eta gauza batzuk kontuan hartzeaz gain, beste batzuk zuzentzeko balio izan zidan, gaizki zeudelako. Horrela, liburuaren azken bertsioa osatu nuen eta hurrengo pausua liburua argitaratzea izan zen.

#### **Nola egin zenuen?**

Argi nuen ez nuela argitaletxe askotara jo nahi. Beraz, autoedizioaren aldeko hautua egin nuen. 'Circulo rojo' argitaletxearekin egin dut elkarlana eta oso gustora gelditu naiz. Oso pozik nago emaitzarekin.

#### **Istoria hiru sasoi historiko ezberdinetan banatzen da. Zergatik?**

Alde batetik, hasiera bat dago XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran kokatzen dena; eta gero, mamia duen sasoi gerraostea da, hau da, 1940. hamarkada. Bestetik, pentsatu nuen ondo egongo litzatekeela gaur egungo ikuspegia ematea eta pandemiaren sasoi islatu nuen, bakoitza bere etxean egon zen momentu hura. Horrela, istorioa lotzeko, pertsonaia nagusiaren

**“Asko baloratzen dut hizkeraren bitartez pertsonaiak noizkoak diren, euren maila sozial eta ekonomikoa... igartzea, eta hori egiten saiatu naiz”**

ilobaren figura sortu nuen. Bere amona hiltzen denean errudun sentitzen da, berarekin egongo zela esan ziola, eta lan bat betetzeko beharra sentitzen du. Orduan, Interneten sartzen da amamak eta amak esandakoen inguruan ikertzera.

#### **Beraz, hiru sasoiak lotuta daude?**

Sasoi zaharretako istorioak paraleloak dira, eta pandemiaren sasoiak balio du azaltzeko beste istorioetan zer gertatzen den.

#### **Hiruretan galtzaileen eta garaituen istorioa dago?**

Hasieran pentsatuta nituen sei istorioek gai hori zuten amankomunean, batez ere umeen edo gazteen ikuspe-

gitik. Liburuko pertsonaia nagusia militar frankista bat da. Militarra da tokatu zaiolako, baina kargua lagatzea da bere asmoa. Ostera, lagun batek, Carranzaren seme batek, dirua irabazteko aukera eskaintzen dio modu ezkutuan wolframioa lortzen zutenekin negozioak eginenez. Gerrako bando irabazteko militarra izanik, bere alaba oso ondo bizi da, baina bat-batean desagertu egiten da. Zergatik? Alemaniarrek wolframioarekiko interesa galtzen dute; AEB-k eta Erresuma Batuak Franco presionatzen dute naziak entregatzeko, bestela Espainiaren aurka jarriko direla esanez... Testuinguru horretan errudunak bilatzen dituzte eta Carranzaren alaba desagertu egiten da. Liburuan behin besterik ez dira agertzen galtzaile eta garaitu berbak, apaiz baten berbetan: “Nire eliztarren artean ia ez dago garaiturik, baina ia denak dira galtzaileak”.

#### **Nola moldatu zara kontakizun historikoa eta fikzioa modu egokian uztartzeko?**

Zentzu horretan, lagun batek esan zidan bezala, sen didaktikoa irten zait. Izan ere, gauzak azaltzea gustatzen zait eta liburuan hainbat azalpen-ohar jarri ditut gertakizun historikoei lotuta.

#### **Nolako liburua dela esango zenuke?**

Hasieran esaten nuen nobela historikoa dela eta bai, bada, baina fikzioa garrantzitsuagoa dela uste dut. Orduan, datu historikoak dituela kontuan hartuta, fikzio modernoa dela esango nuke. Pertsonaia garrantzitsuenak nik asmatutakoak dira. Idazleen artean asko baloratu izan dut gauza oso zail bat: hizkeraren bitartez pertsonaia bakoitza zein garaitakoa den, zein maila sozial eta ekonomikoa duen, eta abar. Hori egiten saiatu naiz. Adibidez, XIX. mendeko apaiz batek moja den ahizpari idatzitako karta batzuk agertzen dira liburuan eta lan handia egin behar izan dut bere hizkera behar bezala adierazteko. Horretarako, ‘La regenta’, ‘Pazos de Ulloa’ eta horrelako liburuak berriz irakurri behar izan ditut hizkera horretan murgiltzeko eta espresioak hartzeko. Bestetik, Bierzoko toki batzuetan gaztelania eta galegoa nahasten dituzte, eta liburuan hango pertsonaiek berba egiten dutenean berezitasun horri eusten saiatu naiz,



### **“Liburuak etxera heldu zirenean demaseko poza eman zidan, oso sentsazio polita da”**

aditzekin batez ere, galegoz ez dagoelako aditz konposaturik. Gustora gelditu naiz lan horrekin, hainbat urtetan azaldu ditudan gauzak islatzen saiatu naizelako.

#### **Zuretzat zer izan da liburu bat kaleratzea?**

Hasieran ilusioa nuen, baina lagunen artean banatzea pentsatzen nuen. Gero, animatzen joan naiz. “Zorionak liburuagatik”, esan zidaten lehengo egunean Eibarren partiduan. Agian esan zidanak ez du liburu irakurriko, baina agur horrek merezi duen zerbait egin duzula erakusten du eta pozgarria da. Bestalde, liburuak etxera heldu zirenean demaseko poza eman zidan, oso sentsazio polita da.



# Giro ederrean ospatu ditugu Aratosteak

Azken urteotan baino eguraldi tristeagoarekin ospatu ditugu Aratosteak aurten, baina ederki ibili gara, berdin-berdin. Zapatu eguerdian egindako koadrilen kalejirak kolorez jantzi zituen herriko kaleak. Izan ere, urtetik urtera arrakastatsuagoa eta ikusgarriagoa ari da bihurtzen Eibarko Udalak antolatzen duen kalejira-lehiaketa, eta parte-hartzaileek umorea eta imaginazioa soberan daukatela argi erakutsi zuten.

Aratosteetako argazki bilduma guztiak ikusteko eskaneatu kodea:



Aratosteetako bideo guztiak gure YouTube kanalean daude ikusgai











IRATI ALVAREZ MALAXETXEARRIA

## Fotosintesia

Autobusa hartu dut. Urduri nago, baina pozik. Lagun min batekin gelditu naiz Bilbon. Lehenengo aldiz mutil batekin gelditu izan naizenean baino urduriago nago, agian. Ez dut kezkatzeko arrazoirik; alderantziz, lasai egon beharko nuke. Bestalde, lagunarekin gelditzeak barrenak mugiarazi dizkit, zentzurik onenean -hau posible baldin bada-.

Kafesnea eta tortilla pintxoa hartuta, tabernako mahaira gerturatu gara biok. Herri desberdinetan bizi gara; ez dugu astero elkartzeko aukerarik izaten. Bakoitzak bere errutina, ardura eta ordutegiak ditu, baina, nolabait, elkarri eskaintzeko tartea bilatu dugu. Hasierako urduritasuna ahaztuta, norberaren egoeraz mintzatzeari ekin diogu lasai asko. Denetarik dugu hitz egiteko: lanaz, ikasketez, harremanez, familiaz, etorkizunaz, militantziaz, iraultzaz... ez da gairik falta. Gai “serioez” gain, barre artean, anekdota edo “txorradetz” ere hitz egin dugu. Isilune momentuak ere badira batzuetan, baina ez dira isilune deserosoak.

Kafea eta pintxoa amaituta, tabernatik irten eta eguzkitan jarri gara. Ez ditugu munduan dauden arazoak konpondu; hala ere, elkarri korapiloak askatzen lagundu diogu. Albokoa epaitu gabe, baina kritikotasunez. Gure arazo eta kezkez hitz eginda, gainean dugun motxila gutxinaka askatzen doa.

Kasualitatez, otsailaren 14a da gaurkoa. Ez dut egun hau inoiz ospatu. Aitzitik, ezin dut burutik kendu gaurko eguna lagunei eskaintzekoa ere badela. Laguna maite dudala konturatu naiz. Ez bikote-harreman batean bezala, desberdin. Gero eta indibidualistagoak garen eta bikote-zentrista den mundu honetan, horrelako lagunak izatearen garrantziari bueltak ematen hasi naiz. Ez al da harremanak zaindu, elkarren korapiloak askatu eta loratzen laguntzea iraultzailea eta ospatzekoa?

Behin lagun honek itsaso usaina nuela esan zidan, lasaitasuna transmititzen niolako edo. Eguzkia da bera niretzat. Isiltasun tarte batean, begiak itxi eta eguzkiari begira, arnasa hartu dut.

**“Gero eta indibidualistagoak garen eta bikote-zentrista den mundu honetan, horrelako lagunak izatearen garrantziari bueltak ematen hasi naiz”**

# 30. Eibarko Duatloia gero eta gertuago

Hamabost egun besterik ez dira falta Eibarko Duatloia 30. ediziorako. Iaz antolakuntza arloan izandako arazoen proba bertan behera lagatzea ekarri bazuten ere, indarberrituta ekin diote Eibar Triatloi Taldeko antolatzaileek dena prestatu eta gure herriko duatloia erreferente bihurtzeko asmotan.

**E**z da, ez, lan makala izaten horrelako probak antolatzearena. Lagun askoren inplikazioa eskatzen duelako. Eta boluntarioekin batera, baita babesle eta laguntzaileen parte-

hartzea ere. Alex Higuera JAZ Eibar Triatloi Taldeko ordezkariak dioenez, “120 lagun inguru behar dira duatloia egunean bertan, baina aurretik antolakuntza lan handia egin behar izaten da; horretarako biltzen gara taldeko hainbat kide gure artean horiek lanok banatzeko”. Higuera ez du ahaztu nahi “babesleen aldetik, JAZek eskaintzen digun ezinbesteko laguntza, egun horretarakotik aparte denboraldi guztirako”. Eta kontuan ditu herriko denden eta inguruko beste enpresen inplikazioa ere “etxeko lasterketa aurrera ateratzeko orduan”.

## Lau urtetan Duatloi bakarra

Martxoaren 2an jokatu den gure herriko probaren 30. edizioa gogo biziz hartuko dute kirol modalitate horiek praktikatzen dituztenek. Azken lau urteetan edizio bakarra izan delako jokoan, orain dela bi urtekoa: “2020an eta 2021ean ez zen jokatzeko aukerarik izan, pandemiarengatik. Eta, 2022an berreskuratu bagenuen ere, iaz ezin izan genion aurre egin” dio Alexek.



## 5 kilometro oinez, 18 bizikleta gainean eta beste 2'5 oinez izango ditu probak

Probaren ezaugarriei begira, ohiko bidetik joko dute antolatzaileek. Hasteko, bost kilometro izango dituzte parte-hartzaileek antxintxiketaren egiteko; ondoren, bigarren sekzioan, 18 kilometroko ibilbidea osatuko dute bizikleta gainean; eta, azkenik, gurpilak alde batera laga, eta beste bi kilometro eta erdiko antxintxiketaldiarekin iritsiko dira helmugara.

Partaidetzari begira, 212 atletetan ezarri dute muga. Interesatuak, beraz, komeni zaie lehenbailehen izena ematea, toki barik ez daitezkeen geratu. Dena dela, Alexek dioenez, “ez da erraza kopuru horretara iristea, polita izango litzateke”. Berarekin egon garenean, 39 ziren izena emandakoak, “baina mundu



Eibar Triatloi Taldeko Alex Higuera itzaropentsu dago Eibarko Duatloiarekin.



Giro sortzeko tarteak ere eskainiko ditu martxoaren 2ko probak. NAIKE EREÑOZAGA.



Bariantean izango dituzte parte-hartzaileek aldapa gogorrenak. NAIKE EREÑOZAGA.

guztiak lagatzen du azken ordu-rako". Datorren asteko zapatuan, otsailaren 24an, gaueko 23:59an, amaituko da izena emateko epea. Eta inskripzioak honako helbidean egin daitezke: <https://www.rockthesport.com/es/evento/eibarko-duatloia-2024>.

### Mailak eta sariak

Eibarko Duatloian, absolututik aparte, beste hainbat mailatako sailkapenak izango dira jokoan. Horrela, sariak izango dira 23 urtetik azpiko onenentzat eta gauza bera junior, jubenil eta kadete onenentzat ere, ahaztu barik beteranotan izango diren hiru mailetako onenentzat. Eta, jakina, taldekako sailkapenaren irabazleentzat. Arlo

guztietan, gizonetzko zein emakumezkoen arloetan. Absolutu mailetako hiru lehenengoez, saritik aparte dirua ere jasoko dute: "Irabazle biek 100 euro jasoko dute, bigarrenek 75 euro eta hirugarrenak 50 euro. Eta, jakina, irabazleek txapela eramango dute etxera".

Aipatutakoez gain, "parte-hartzaile guztiek kamiseta bat daramate, eta baita boluntarioek ere. Eta zozketa bat edo beste egingo dugu", dio Eibar Triatloi Taldekoak. Aurreko edizioetan izandako bidetik, Untzaga izango da probaren gune nagusia, boxeak-eta hartuko dituen, sekzioen arteko trantsizioekin batera, eta bertan "kokatuko dugun oholta ez estalian egingo ditugu sari-banaketa horiek".

### Euskal zirkuitoa

Martxoaren lehen zapatuko proba hori Euskal Duatloi Zirkuitoko laugarrena izango da. Aurretik, zapatu honetan Amorebieta-Etxanoko Taldekako Erlojupeko Duatloia jokatuko da Zornotzan, eta domekan Garaiko Erreleboen Taldekako Duatloia eta kadete mailako Garaiko Super Sprint Duatloia izango dira jokoan, biak ere Garain bertan. Eta hurrengo asteko zapatuan Mungiako Duatloia izango da handik zortzira gurean jokatuko denaren aurrekaria. Poba horiek guztiak sprint distantziakoak dira, kenduta Garaikoa, proba horrek supersprint distantzia izango baitu.

Eibarko Duatloia zertan den berezia galdetuta, Alex Higuera honakoa diosku: "Esango nuke eibartarrok egiten dugula berezi proba hau. Probak, berez, ibilbide berezirik ez badu ere, euskal duatleta eta triatleta onenak etortzen dira beti, eta aurten gauza bera gertatzea espero dugu". Onartzen du, hala ere, "Eibarren hainbeste aldapa izanez, horrek lasterketari gogortasun puntutxo" ematen diola, "Batez ere bizikletarekin bariantean sartzean". Probak erreferentzia izateko osagai guztiak dituela sinestun dira antolatzaileak. Duatloia berriro finkatu ondoren, pixkanaka helduko dira emaitza handiagoak.





## Racheal Kundananji munduko fitxaketa garestien bihurtu da

SD Eibartik Madrid CF taldera jauzi egin zuen Racheal Kundananji jokalariz zambiarra emakumezkoen futbolean izan den trasasorik garestiena bihurtu zen martitzenean Madriderik AEB-etako Bay FC taldeari 800.000 eurotan saldu zionean. Aurretik Indeni Roses eta BIIK Kazygurt taldeetan jokatu-tako aurrelari zambiarra 2021ean heldu zen SD Eibar-era, 21 urterekin, eta hainbeste nabarmendu zen talde armaginean hurrengo denboraldirako Madriderik fitxatu zuela.

## Eibar Rugby Taldeak Pozuelo hartuko du etzi Unben mailari eusteko play-offean

Partidua ezin erabakigarriagoa izan daiteke domeka goizean Unben, 11:00etan hasita, Eibarrek eta Pozuelok jokatu dutena. Ohorezko Mailako liga erregularrean azken bi postuetan amaitu zuten biek eta, mailari eusteko hasiko den fase berrian, eurak dira puntu gutxienekin abiatzen direnak. Madrildarrak bost punturekin abiatzen dira eta eibartarrak lau dituzte bakarrik; euren lehiatuko duten Bartzelonak eta Sevillako Cocos, 15 eta 13rekin hasten dira, hurrenez hurren.

Bigarren jardunaldian, martxoaren 3an, Bartzelonara joango da, bertako taldearen aurka jokatzeko; eta play-offaren azken partidua ere kanpoan jokatu beharko du, Sevillan, bertako Corteva Cocos taldearen aurka.



Aipatutako play-offean azkena geratzen denak maila galduko du, eta hirugarren sailkatzen bada Ohorezko B Mailako azpitxapelkunaren aurka jokatu beharko du promozioa. Horren aurrean, zaletuen animoak ondo etorriko zaizkie armaginei.

## Erregionaleko hiru taldeak indar betez

Ohorezko Mailako Eibar Urko bigarren postuan dago, Gorengo Mailako Urki hirugarren aurkitzen da eta dagoeneko igoera fasea jokatzen diharduen 1. Mailako Eibartarrak lider da bere multzoan. Eibar Urkok, azken jardunaldian Debako Amaiak Batekin berdindu eta gero, bost puntura du Aretxabaleta berriro txapelketa hori irabazi eta, oraingoa bai, Vitoria filialak goiko mailan laga dezakeen tokia lortuko badu. Urkik, bestalde, bi puntura du Aloña Mendi eta askoz urrutiago, ihes eginda, Mondragon, 10 puntura. Eibartarrak, bestalde, inoiz izan duen denboraldi bikainena jarraitzen du egiten eta, Texasekin berdinduta bada ere, lehenengo da.

## Urbat nagusi izan zen Alcorconen aurrean

Hiru puntu garrantzitsu eskuratu zituen gure herriko waterpolo klubeko lehen taldeak zapatuan Donostiako Paco Yoldi igerilekuan 2. Nazional Mailako partiduan Alcorconi hamabi golengatik irabazita. Lehen fasea amaituta, talde armaginak 2. multzoan borrokatu

beharko du hemendik aurrera, mailari eustearekiko helburuarekin. Fase horretarako sailkapena honela dago: 12rekin, Dos Hermanas, Malaga eta Urbat; 10ekin, Brains; 9rekin, Alcorcon eta Chiclana; 6rekin, Elche; eta 2rekin, Tres Cantos.







## Pello Osoro bigarren izan zen Hижarren

Pello Osoro eibartarrak podiumeko bigarren tokia eskuratu zuen aurreko asteburuan Hижarren jokatuako Duatloiko Erdi Distantziako Espainiako txapelketan. Postu hori lortzeko orduan, garrantzi handia izan zuen bizikleta gainean jokatuako segmentuan egindako lanak. Iaz ere txapela jantzi zuen Fernando Zorrilla irabazlearen atzetik Peñota

Dental Alusigma taldeko bi ordezkari helmugaratu ziren; eta emakumezkoetan ere Peñota taldeak lortutako emaitza bikainek taldekako mailako txapela janztea ekarri zion Pello Osororen taldeari.

Asteburuan hurrengo erronka izango du eibartarrak, Huescako Anson jokatuako den Neguko Triatloiaren Espainiako Txapelketan.



## Bihurri Urrezko Aizkolarien finalean

Hodei Ezpeleta "Bihurri" k eta Jokin Urretabizkaia "Basozabale" k Urrezko Aizkolarien binakako txapelketako finalerako txartela eskuratu zuten Oñatiko kanporaketan. Beste bi bikote izan zituzten aurkari: Ugaitz Mugertzak eta Ibai Soroak osatutakoa, alde batetik; eta Jon Rekondok eta Oihan La-

rretxeak osatutakoa, bestetik. Bost modalitate desberdinetan lehiatu zituzten, eta guztira 36 enbor moztu zituen bikote bakoitzak, bost modalitatetan banatuta. Hemendik zortzira Azpeitian jokatuako den Urrezko Aizkolarien finalean gaur egungo onenekin lehiatu beharko dute. Lan zailak benetan!

## ASTEBURUKO AGENDA

### FUTBOLA

- Emakumezkoen 1. Maila**  
EIBAR - Levante (etzi, 12:00)
- Gizonezkoen 2. Maila**  
Elche - EIBAR (etzi, 21:00)
- Emakumezkoen 3. Maila RFEF**  
Monte - EIBAR B (etzi, 12:30)
- Gizonezkoen 3. Maila RFEF**  
Leioa - VITORIA (bihar, 17:30)
- Emakumezkoen Euskal Liga**  
EIBAR C - Elorrio (etzi, 17:45)
- Erregionaleko Ohorezko Maila**  
EIBAR URKO - Lagun Onak B (bihar, 15:30)
- Erregionaleko Gorengo Maila**  
Danena - URKI (etzi, 17:30)
- Erregionaleko 1. Maila**  
Irauli Bosteko - EIBARTARRAK (bihar, 17:30)
- Jubeniletako Ohorezko Maila**  
Txantrea - EIBAR (etzi, 12:00)
- Jubeniletako Liga Nazionala**  
EIBAR B - Alaves B (bihar, 12:30)
- Kadeteetako Euskal Liga**  
Amaikak Bat - EIBAR (etzi, 16:15)

### FOBALL-ZALETUA

- Gastro Gilda - Bar Marem (bihar, 09:00)
- BOJ - Garajes Garcia (bihar, 10:30)
- Limp. Rueda - Adahi Eraieder (etzi, 09:00)
- Baserri - Xania Taberna (etzi, 10:30)

### ESKUBALOIA

- Emakumezkoen Zilarrezko Maila**  
MEK EIBAR - Loizaga Castro (bihar, 18:30)
- Gizonezkoen 1. Nazional Maila**  
H. Anaitasuna - MEK EIBAR (etzi, 12:00)
- Emakumezkoen Euskadiko Liga**  
Kukuluga - MEK EIBAR B
- Gizonezkoen Lurraldeko Liga**  
MEK EIBAR B - Leizaran (bihar, 16:30)

### FRRUGBIA

- Emakumezkoen Ohorezko Maila**  
EIBAR - Pozuelo (etzi, 11:00)
- Gizonezkoen Euskadiko Erregionala**  
Iruña - EIBAR (bihar, 16:00)

### SASKIBALOIA

- Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila**  
EIBAR - Luberrri Baserria (etzi, 11:30)
- Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila**  
Zalburdi Debasket - EIBAR C (bihar, 16:00)

### WATERPOLOA

- Gizonezkoen Euskal Herriko Liga**  
URBAT B - Leioa WP (gaur, 21:30)
- Emakumezkoen Euskal Herriko Liga**  
Leioa WP B - URBIAK (gaur, 22:00)

### XAKEA

- Gipuzkoako 2. Mailako Liga**  
Txaturanga - EIBAR (bihar, 16:00)

## Josune Arangurenen erakusketa bisitatu dute berbalagunek

“Emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoak” izeneko erakusketan izan dira asteon berbalagunak, Josune Aranguren egilea bera gidari. 15 irudiz eta 13 testuz osatuta dago artista eibartarraren erakusketa baina berbalagunek, gainerako bisitariak bezala, aukera izan zuten falta diren testuak eta margolanak gehitzeko. Antolatzaileen esanetan, “bizipen eta gogoeta pertsonaletan oinarrituta, artistak bere testu eta margolanen artean loturak ezartzen ditu, emakumeek hainbat esparru eta egoeratan jasaten ditugun indarkeria sinbolikoak ilustratuz”. Otsailaren 29ra arte egongo da erakusketa ikusgai.



## Nerea Ibarzabal izan da Harixa Emoten saioan

*Bar Gloria* liburuak irakurri dute euskarazko irakurketa-taldeko kideek eta martitzenean izan zuten egilearekin berarekin, Nerearekin, liburuari mamia ateratzeko aukera. Ainhoa Aldazabalek gidatzen duen literatura tertuliak martxoan Uxue Alberdiren *Belarriko kilkerra* liburuak izango du ardatz.



## Irten da Txikitto!ren otsaileko alea

Datorren astean jasoko dute herriko LHko ikasle guztiek Txikitto!-ren ale berria. Ikasleek eurek egindako denborapasa, txiste eta ipuinak, Iturburuko ikasleen ametsak eta amama eta biloben arteko elkarrizketa polita jasotzen ditu, besteak beste, otsaileko aleak.

Ikasleekin egindako azken bideoa





Egitarau osoa  
deskargatzeko:



**otsailak 18 (domeka)**



**“Tómbola”**

X Konpania (Gipuzkoa)

**Dantza / 60'**

**Antzeleak:** SARAY GARZIA,  
NADIA YAGUBI, ADA CONTINENTE

**Zuzendaria:** GARZIA, YAGUBI, CONTINENTE

Dantza garaikidea eta antzerkiaren nahastura. Batzuetan ametsa errealitatearekin bat egingo du, besteetan fikzioa gaindituko, beti ere joko bat besterik ez dela ulerturik.

**Coliseo (19:00)**

**otsailak 19 (astelehena)**



**“Poncia”**

Teatro Español & Pentación (Madril)  
*Luis Luquerenaren lana*

**Drama / 70'**

**Antzeleak:** LOLITA FLORES

**Zuzendaria:** LUIS LUQUE

Garcia Lorcaen “La casa de Bernarda Alba” obrako Ponciaren hitzetan oinarrituta. Suizidioaz, askatasunaz eta kulpaz mintzo da, bizirik gelditzen direnekin kontuak kitatzeko.

**Coliseo (19:00)**

**otsailak 21 (eguztana)**



**“Días estupendos”**

Pabellón 6 - Gazte konpania (Bizkaia)

*Alfredo Sanzolen lana*

**Tragikomedia / 90'**

**Antzeleak:** GORKA LUNA,  
IZAR PIZARRO, ITXASO SANCHEZ

**Zuzendaria:** ITZIAR LAZKANO

Komedia sensua, lotsagabe eta sentimentala da. Udako “iheskortasunak” urte osoan iraunarazteko gogoak dakarren frustrazioaren ingurukoa, une dramatiko eta barregarriekin.

**Coliseo (19:00)**

**otsailak 22 (eguna)**



**“Las guerras de nuestros...”**

Pentación Espectáculos (Madril)

*Miguel Delibes: Eduardo Galanen bertsioa*

**Drama / 90'**

**Antzeleak:** CARMELO GOMEZ,  
MIGUEL HERMOSO

**Zuzendaria:** CLAUDIO TOLCACHIR

Gerrari uko eginez, bakea bizitzarako bidetzat hartzen da. Eleberraren jatorrizko eskemari jarraituz, Pacifico protagonistak espetxeko psikiatrarekin izandako zazpi elkarrizketak.

**Coliseo (19:00)**



## Otsailetik ekainera bitarterako musika eskaintza zabala aurkeztu du Udalak

Otsailetik maiatzera bitarteko musika-programazioa aurkeztu du aste honetan Udalak. Bost kontzertu antolatu dituzte, eta Jon Iraola alkateak, Andoni Zabala Kultura zinegotziak eta Jose Luis Gonzalez Kultura teknikariak adierazi dutenez, “publiko guztiei zuzendutako programa zabala” prestatu dute. Jarduerak Coliseo antzokian edo Portalean egingo dira.

Otsailaren 25ean hasiko da programazioa, Jussi Jo'Buddy kantari, gitarrajole eta konpositore finlandiarrek 19:00etan Portalean emango duen kontzertuarekin. Esandakoaren arabera, “Jussik Finlandiatik igaro diren blues-musikari ia guztiek ino du, eta baita Estatu Batuetakoekin ere. Oso estilo pertsonala du. Haren musikak bizipoza transmititzen du, eta, gainera, atenporala da, lurrari lotua eta espirituala. 40 urteko esperientziarekin, 16 herrialde baino gehiagotan jo du”.

Martxoaren 16an, berriz, Rodrigo Cuevasek *Manual de Romería* diskoa aurkeztuko du, 19:00etan Coliseo antzokian. Cuevasek hainbat sari jaso ditu, tartean *Egungo Musiken Sari Nazionala 2023*, bere obraren “berezitasunagatik”. Musika tradizional folklorikoa herri-musika garaikidearekin uztartzen du Cuevasek, hortik bere musikaren berezitasuna. Apirilaren 13an, 20:00etan, Idoia Asurmendi abeslariak *De amar y desandar* diskoa aurkeztuko du, Coliseon. Aramaioko artista kanta berriekekin etorriko zaigu bere bigarren lana den honetan, “maitasunaz, hazkunde pertsonalaz eta egindako ibilbidean sortutako oroimenez hitz egiteko”. Mikel Gaztelurrutia pianista eibartarraren emanaldia maiatzaren 4an izango da, Coliseon, eta bertan bere bigarren lana aurkeztuko du. Eta, egitaraua ixteko, Bewis de la Rosa raperoak *Amor más que nunca* lana aurkeztuko du Coliseo antzokian, maiatzaren 11n.



## Euskal Jaiko kartelen erakusketa berria Topalekun

Gaur 19:00etan egingo da Euskal Jaiko kartelen erakusketa zabalteko ekitaldia, Arrate Kultur Elkartearen Topalekun, “luntx txiki batekin lagunduta”. Erakusketa Klub Deportiboko 100. Urteurrenaren ospakizunen barruan kokatzen da, eta gaurtik hasita martxoaren 3ra arte egingo da ikusgai, taberna zabalik dagoen ordutegian (sarrera bertatik egin beharko da). 1965ean egin ziren I. Euskal Jaia Eibarren eta, 2015ean Urrezko Ezteiak ospatu eta gero, iaz bere 57. edizioa bete zen. Aurten, beraz, 58.era ailegatuko dira, maiatzaren azken asteburuan, ohikoari jarraituz. Hori bai, Deporren 100. Urteurrena bizitzen dihardugun honetan, horko ekimenak ere bereziak izango dira oso, gaurtik aurrera bisitatu daitekeen erakusketarekin hasita.

## Otsailaren 25ean itxiko da Eguen Zuri Argazki Lehiaketarako epea



Arrate Kultur Elkarteak XXVI. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa antolatu du aurreneko. Gaia “Aratosteak” da (argazkiek ez dute zertan Eibarko Aratosteetakoak edo

Eguen Zurikoak izan). Zuri-beltzean nahiz koloretan egindako argazkiak onartuko dituzte, egile bakoitzeko hiru lan gehienez. Irudiak JPG formatuan egon behar dira, eta eguenzuri2024@gmail.com helbidera bidali beharko dira, egilearen datuekin batera. Lanak bidaltzeko azken eguna otsailaren 25a da.



## “Andereño” euskarazko lana taularatuko dute bihar

Arratsaldeko 17:00etan hasiko da Bizkaiko Anita Maravillas taldekoek eszenaratuko duten “Andereño” lana. Miren Larrearen ideiatik abiatutako obra ordubetera ere ez da iristen (55 minutu) eta familientzako txotxongilo-ikuskizuna da. Anita Maravillasen zazpigarren lan hori Ivan Alonsok zuzentzen du, eta Maren basterretxea eta Valentina Raposo dira antzezleak. “Andereño”-ren istorioa aske eta zorionsu izateko saiakera ero eta ederra da, neska-mutikoen gaitasunetan sinesten duen andereño ausartarena, “belarrira xuxurlatzen diguna aske izateko lehen baldintza saiatzea dela”.



## Anabel Alonsoren saioak hasi ditu Antzerki Jardunaldiak

Eguaztenean hasi ziren XLVII. Antzerki Jardunaldiak, Anabel Alonso eta Irene Hernando antzezleen arteko solasaldiarekin. Coliseo antzokian egindako saioan, aktore ezagunaren ibilbide profesionala errepasatzeaz gain, ofizioarekin lotutako hamaika pasadizo kontatu zituzten (*Argazkia: Eibarko Udala*).



## Udaberriko Kontzertua domekan Astelena frontoian

XV. Udaberriko Kontzertua eskainiko du Eibarko Musika Bandak domekan, 12:30etik aurrera Astelena frontoian. Urtero bezala, bizikleta gaineko proben denboraldia hasten dela-eta, Eibarko Txirrundulari Elkarteari eskainiko diote emanaldia. Programa osatzeko “txirrundulari musika” aukeratu dute oraingo honetan: *Agüero* (pasodoblea, J. Franco), *La del manojo de rosas* (P. Sorozabal), *Vizcaytik Bizkaira* (R.M. Azkue), *Os passaros do Brasil* (deskriptiboa, K. Vlak) eta *Mary Poppins* (selekzioa, R. Sherman). Txirrundulari Elkartearekin elkarlanean prestatutako saioa izanik, elkartearen ereserkia joko dute amaieran.

## Barreterapia tailerra antolatu du Udalak LH-ko haurrentzat

Barreterapia, arte eszenikoen inguruko tailerra antolatu du Udalak. Lehen Hezkuntzako 2., 3. eta 4. mailako ikasleentzat izango da, martxoaren 3an eta 10ean (domekak), 17:00etatik 18:30era, Errebal Plazan. Ikastaroak 6 euro balio du Eibarren erroldatuta daudenentzat (12 euro besteentzat). Gaur hasi da izen-ematea (Internet bidez, Udalaren webgunean).

## Zine-forum saio feminista



Gaur arratsaldean zine-forum saio feminista egingo da, Berdintasun Zerbitzuak eta Pagatxa emakume elkarteak antolatuta, 18:30ean Portaleko areto nagusian.

*La fotógrafa de Monte Verità*, Stefan Jäger zuzendariaren filma ikusi eta, ondoren, horri buruz berba egiteko tartea zabalduko da, Izaskun Rodríguez Elkorok dinamizatuta. Sarrera librea da.

**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

7		4		1	2	
2	6		7			3
			5		7	8
				8	9	
8			7			5
	1	4				
4	2		6			
9		2		3		4
	6	1		4		9

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z

soluzioa

soluzioa

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

	8		4		7	
	5				4	6
		7	8		9	3
		1	5			
	2			9		5
				8	6	
1	8			2	3	
9	3					6
	6		7			1

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

Zatika emandako erantzunak osatu ahala, eraman itzazu letra zenbakidunak beheko taulara -adibidean bezalata Paskual Iturriagaren alegi baten zatia aurkituko duzu.

Arroka

1	A	2	3	4	A			
	E	5	6	R	7	U		
	U	N	T	8	9	A		
	A	10	11	12	13	A		
	Z	14	R	15	E	16		
	A	17	18	I	D	E		
	S	A	19	20	21	22		
		23	E	Z	24	25	A	
			B	E	26	I	27	28
			Z	29	30	A	T	31

Eskoba hegalariaen jabe

Zikoitza, esku-eutsia

Toki batetik bestera aldatu

Ehun urtekoa

Mahats-zuku irakin gabea

Salmentako partaide

Hondakin

Aintzira bokia

Adar-gai

Diru-etxea

S	O	32	G	33	N	
Z	E	34	K	35	N	A
M	U	37	38	39	U	
M	40	41	42	E	A	
M	43	Z	44	I	O	
B	45	Z	E	R	46	
H	O	47	D	48	R	
U	R	49	A	50	L	
A	51	A	R	K	52	
B	A	N	53	54	55	

Urria eta berendiaren laguna

Toreroaren etsaia

Basa-behi

Zahagi bokia

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29				
30	31	32	33	E	K	36	E	37	38	39	40	41	42	43	44	45
46	47	48	49	50	51	52	53	54	55							

# Otsailak 16 / 22

## BARIXAKUA 16

### EMAKUME ZIENTZIALARIAK

**17:00** Zientzia-tailerrak, 7-11 urte bitartekoentzat, Emakume Zientzialarien Eguna ospatzeko. Errebal Plaza.



### BARIXAKUAK JOLASIAN

**17:00/18:00** Jolasak, euskaraz, 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat. ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Doan. Torrekuia (parkea).

### ZINE-FORUMA

**18:30/20:30** "La fotografía de Monte Verità" (Stefan Jäger). Dinamizatzailea: Izaskun Rodríguez Elkoro. Sarrera librea. Portalea (areto nagusia).



## ZAPATUA 17

### JAIA ETA ATE-IREKIAK

**10:30/14:30** Eskolako jaia eta ate irekien jardunaldia. Puzgarriak, Jokai egurrezko jolasak, henna tatuaje tailerrak, munduko janari ezberdinak dastatzeko aukera, musika, ipuin kontalariak... Amaña herri ikastetxea.

## TAILERRA

**11:00/14:00** Akuarela tailerra, Santi Entrenaren eskutik. Doan. Ipuruoko merkatu plaza.

### XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

**17:00** "Andereño" (Anita Maravillas, Bizkaia). 5 euro. Coliseo.



### MUSIKA

**18:30** Vertigo Rock musika jaialdiaren aurkezpen-festa, From Hell, Nemon eta Erramunak taldeekin. Ez Dok-Zaizoi.



## DOMEKA 18

### MUSIKA

**12:30** Udaberri Kontzertua, Eibarko Musika Bandaren eskutik. Eibarko Txirrindularitza Elkarteari eskainia, tradizionalki txirrindularitzari lotutako musikarekin. Astelena frontoia.



### XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "Tombola" (X Konpainia, Gipuzkoa). Dantza. 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

## ASTELEHENA 19

### KANTU-SAIOA

**19:00** Euskal kantu tradizionalen inguruko saioa. Arrate Kultur Elkartea.



### XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "Poncia" (Teatro Español-Pentacion, Madril). 15 euro (10 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

## MARTITZENA 20

### LIBURU-AURKEZPENA

**19:00** "Perdedores y vencidos", Miguel Arroita jauregi Errasti "Arroita"-ren lehen nobela. Portalea (areto nagusia).



## EGUAZTENA 21

### BATZAR NAGUSIA

**18:30** Arrate Kultur Elkarteko bazkideentzat. Elkartearen lokalak.

### XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "Días estupendos" (Pabellon 6-Gazte konpainia, Bizkaia). 5 euro. Coliseo.

## EGUENA 22

### ODOL-EMATEA

**16:50/20:50** Odola ematera joateko saioa, odol-emaietentzat. Untzaga jubilatutako etxea.

### XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "La guerra de nuestros antepasados" (Pentacion, Madril). 15 euro (10 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

## ERAKUSKETAK

### Otsailaren 18ra arte:

- "BARNE-BIBRAZIOAK", Iker Valleren margolanak. (Portalea).  
- "TXIRRINDULARIA", Jose Zugasti eibartarrarena. (Armagintzaren Museoa).

### Otsailaren 25era arte:

- "ENTRE RECUERDOS", Einer Rodríguez Ponceren argazkiak. (Untzaga gizarte etxea)

### Martxoaren 4ra arte:

- EUSKAL JAIKO KARTELAK. (Topaleku).

## ZINEA COLISEO

**2 ARETOA**

- **17an:** 19:45, 22:30
- **18an:** 20:00
- **19an:** 19:30

**"Priscilla"**  
DRAMA



2023/AEB/110'  
Zuzendaria: Sofia Coppola  
Aktoreak: Cailee Spaeny,  
Jacob Elordi, Emily Mitchell  
**Biografikoa/Musika**

**1 ARETOA**

- **17an:** 16:30, 19:30, 22:30
- **18an:** 20:00
- **19an:** 19:30

**"El color púrpura"**  
MUSIKALA



2023/AEB/140'  
Zuzendaria: Blitz Bazawule  
Aktoreak: Fantasia Barrino,  
Danielle Brooks, Taraji Henson  
**Feminismoa/Arrazismoa**

**2 ARETOA**

- **17an:** 17:00
- **18an:** 17:00

**"Katak, la ballena blanca"**  
ANIMAZIOA



2023/Kanada/79'  
Zuzendaria: Christine Dallaire  
**Txikia ausarta izan daiteke/  
Abenturak**



**Jose Luis Prieto**  
**"Txelu"**

**3. URTEURRENA**  
2021/02/19

**Maite**  
**zaitugu**

**-IDOIA, AITOR ETA IGOR-**



**FUNEUSKADI**  
Grupo Anónima

**FUNERARIA MUGICA**  
Funeraria S.L.

**TANATORIO EIBAR**

**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951**  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

<b>Eibar:</b> Osoola, 27	<b>Elgoibar:</b> Koxilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
<b>Eibarko bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20	<b>Ermuako bulegoa:</b> Marqués de Valdeolona, 16

**Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao**



943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da ...**eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **HELENA!** Hillaren 13an 11 urte bete zenuazten-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Martinen partez.



Zorionak, **YARA!!!** Gaur 9 urte. Oso ondo pasa eguna. Asko maite zaittugu. Famelixaren partez.



Zorionak, **ALEX!** 5 urte! Segi oin arte bezain alai eta jator. Asko maite zaittugu.



Zorionak, **NURA,** bihotza! 7 urte eder bete zenuazten eguaztenian! Milla musu etxekuen eta famelixaren partez! Asko maite zaittugu!



Zorionak, **MAREN,** printzesa, domekan lehen urtetxua egingo dozu-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Julenen partez.



**Mariasun Arano Iriondo**

2024/02/07

"Zure maitasuna  
**BETIKO**  
gure bihotzean"



JARDIÑETAKO  
LAGUNAK



**Herminia Errasti Bolinaga**

2024/02/12

MILESKER  
une latz hauetan gurekin  
egon zareten lagun eta  
famiako guztioi.



- ETXEEKOAK -

# Iragarki laburrak



943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.2. Errentan
  - Deban etxebizitza alokagai, aldi baterako: hilabeteka, asteka. Eguzkitsua, 3 logela, 2 balkoi eta igogailua zero kotatik. Guztiz jantzita. 657795876 (arratsaldez).

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai
  - 2008ko Citroen C3 HDI 70 Audace salgai, diesela eta granite kolorekoa. 116.500 kilometro besterik ez, oso egoera onean, garajean beti. IAT erre-gelan. 645930806.

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
  - Abontzan garaje itxia salgai. 626528738.

## 3.2. Errentan

- Garajea bilatzen dut Ipuruazonaldean. 80 euroko aurrekontua. 628933542.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
  - Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta obretako azkenak jasotzeko. 638421827.
  - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeako garbiketarako egiteko. Interna. 661181824.
  - Emakumea eskaintzen da etxean lan egiteko. 654154301.
  - Emakumea eskaintzen da etxean lan egiteko. 631803496.
  - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 605402030.
  - Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. 612202116.
  - Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Baita asteburuetan ere. 611215176.
  - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. 643398596. Maribel.
  - Emakumea arduratsua eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko. 602800266.
  - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 642177589.
  - Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 642604493.
  - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 642578943.

- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. 613965662.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 679912841.
- Neska arduratsua eskaintzen da 13:00etik aurrera nagusiak zaintzeko eta etxeak edo pegoarak garbitzeko. 620757528.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera bezala. 631502177.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Esperientzia nagusiak zaintzen. 623731063.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 632229972.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez edo ospitalean ere. 644943297.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez edo ospitalean ere. 644655354.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 673538021.
- Gizonezkoa eskaintzen da karretillero bezala eta garabi edo zubi-garabiarekin lan egiteko. 602381455.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 642158889.
- Gizonezkoa eskaintzen da peoi bezala, eraikuntzan lan egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. 624400117.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 656811665.
- Neska eibartarra eta euskalduna eskaintzen da arratsaldez lan egiteko. HH eta LHko ikasketekin. Esperientzia handia. 638083826.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 623731063.
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko. Externa. 624910331.

## 4.2. Langile bila

- Saltzailea behar dugu igandetarako. Lanaldi edo jornada zaitua. Bidali curriculum: [acitain@gmail.com](mailto:acitain@gmail.com)
- Interna behar da nagusia zaintzeko. Paperekin. 687114707.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.2. Eman

- 2 urteko bi txakur oparituko nituzke. Labradore arrazakoa bat, eta ehizakoa bestea. Txertoaz eguneratuta. 653733457.
- Musika klasikako bilduma (100 CD) oparituko nuke. 656732584.



DOLUA ETA HERIOTZARI BURUZKO  
**ipuinaren aurkezpena**



**Otsailak 27, asteartea**  
**18:00**

**...eta kitto! Euskara Elkartean**

izen-ematea: 943 20 09 18 / [elkartea@etakitto.eus](mailto:elkartea@etakitto.eus)

Heldu nahiz haurrentzat.  
Haurrak badatoz, gurasoekin  
etortzea komeni da.



**eta kitto!**  
euskara elkartea

# Aurrematrikulak

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO  
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN

# Otsailaren 7tik 23ra



URKIZU 943 89 91 47



SAN ANDRES 943 20 79 95



J.A. MOGEL IKASTOLA 943 20 84 87



ARRATIKO ANDRA MARI 943 20 72 35



AMAÑA 688 68 72 89

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA**  
Elkarrekin hazten

Garuzte Eskola • Lehen Hezkuntzako 5. B gela

*Zatoz argazkira*

**AURREMATRIKULA, OTSAILAREN 7tik 23ra**  
[www.euskadi.eus/hezkuntza](http://www.euskadi.eus/hezkuntza)

*Euskadi, auzolana*

ELIKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO  
HEZKUNTZA ENDA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



EIBAR BHI 943 89 92 62  
JARDINETZA, 3 B [www.eibarbhi.eus](http://www.eibarbhi.eus)  
DBH 1, 4 + Batxilergoak + ZIG



EIBAR BHI 943 89 92 21  
ISASI, 37 [www.eibarbhi.eus](http://www.eibarbhi.eus)  
DBH1, 2 + Gaiuzenako gela orokorra